

MENDITXIKI-LAPURDI ABADIAKO DUNBAK

Abadiako gazteluaren lurrekin muga egiten, 65 hektareako natura ingurune bitxi eta aberats bat zabaltzen da. Itsas Hegiko eta Aintzira Bazterretako Kontserbatorioa jabe den lur hauetan, erreserba biologiko eta geologiko garrantzitsua aurki dezakegu. Lur hauetan, ekosistema desberdinak aurkituko ditugu: landutako soroak, zelaiak, belardiak, basoak, zuhaixkak... Berrogei txori espezie baino gehiagok habia egiten dute bertan eta gainera, leku aparta da hegazti migratzaileak behatzeko. Itsasora hurbilduz gero, labar gris eta arrosak gure oinpean amilduko zaizkigu. Parkearen sarreran dagoen Larretxea harrera-etxean paradisu txiki honen erakusketa bat dago.



LUZERA: 3 km | DESNIBELA: 49 m

Aparkalekutik abiatu eta berehala, Abadiako lurretan sartzeko dagoen ataka pasa eta, metro batzuk aurrerago, Larretxea harrera etxearekin egingo dugu topo. Ezkerretik jaisten den bidetik segituko dugu labarretarantz gerturatuz. Bidea oso nabarmena da eta tarteka beste zidor batzuk labarretara gerturatzerara gonbidatuko gaituzte. Horietako batetik Dunbak (Zabala eta Luzie) edo Harkaitz Bikiak izenez ezagutzen diren harri-uharte bitxiak ikusteko aukera izango dugu. Elezaharraren arabera Pirinioetako Jaungorriak Baionako katedrala suntsitu asmoz, Aiako Harritik bi harri jaurti eta Hendaiaiko hondartzaren ondora erori ziren. Bide nagusira itzuli eta labarren gainetik segituko dugu.

Abadiako Dunbak edo Bikiak



Halako batean, bidearen bazterrean ikusiko ditugun Bigarren Mundu-Gerran erabiltako bunker batzuen tartetik pasako gara. Hauen ondoan dagoen monolitoa atzean utzi eta, Santa Ana muturrera iritsiko gara. Bunker baten gainean haize-arrosa kokaturik bat ikusiko dugu eta metro batzuk aurrerago itsaslabar bertikalak. Atzera egingo dugu eta, ezkerretik ateratzen den bidezido-

rrean barna, Loiako badia inguratuko dugu. Bide eroso honek Nekatoenea baserrira eramango gaitu, baina lehenago Abadia gaztelura igotzeko itxita egoten den atakaren ondotik pasako gara. Bi jabego desberdin dira eta debekatuta dago gazteluko lurretan hemendik sartzea.

Parkearen erdian kokaturik dagoen gaztelua, itsas aldera begira eraiki zuen Viollet-

le-Duc arkitektoak Erdi Aroko gaztelu eta jauregiak eredutzat hartuz. Eraikinaren barnealdean, berriz, Anton Abadiak munduan zehar egindako bidaien eta bere bizitzaren erakusketa exotiko zabala aurkituko dugu. Bideak Larretxea harrera etxera eramango gaitu bueltan eta, bertan dauden mahai eta zelaietan atsedena hartzeko aukera izango dugu.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

